

MISSIO QUIZ



BENETAKO MISIOLARIA IZATEKO JOKOA

Fitxategi honetan atal hauek dituzu:

- Jokoaren arauak
- Fitxak
- Taula
- Galderak
- Erantzunak

MISSIO QUIZ

JOKOAREN ARAUAK

- Dadoa beharko duzu jokatzeko; beraz, bilatu dado bat. Ez baduzu dadorik eskura, jaitsi dadoen aplikazio bat telefono mugikorrera.
- Jokalariak **erdigunetik** hasiko dira jokatzeko. Gero, mugitu egin behar dute munduak irabazteko. Munduak kolorez eta marrazkiz markatutako biribiletan lortzen dira. Azkenik, jokalariak erdigunera itzuliko dira azken galderari erantzutera. Hauxe da jokoaren helburua: **lau munduak lortzea eta azken galderari zuzen erantzutea.**
- **Jokoko pertsonaia** bat aukeratu behar da. Jokalari edo talde bakoitzak bere fitxa jarri behar du taularen erdian.
- **Zenbakirik handiena** ateratzen duen jokalaria edo taldea hasiko da jokatzeko. Lehen jokalariaren ondoren, ezkerreko jokalariaren txanda izango da (hau da, erlojuaren orratzen noranzkoan izango dira txandak).
- Dadoa bota, eta zer zenbaki ateratzen den, hainbeste lauki mugitu behar da fitxa. **Edozein norabidetan** mugitu daiteke fitxa.
- «**Bota berriz**» adierazten duen lauki grisean eroriz gero, dadoa berriz bota behar da.
- Jokalari batek galderari ondo erantzuten badiu, beraren txanda izango da berriz. Eta jokatzeko jarraituko du, mugituz eta galderei erantzunez, **huts egin arte**. Fitxa zer koloretako laukian dagoen, kolore horretako galderei erantzun behar zaie. Adibidez, lauki urdin batera heltzen bazara, galdera urdin bati erantzun beharko diozu.
- Norbait erdi-erdian badago eta oraindik ez badu mundurik lortu, **nahi duen** kategoriako galderari erantzun diezaioke.
- Jokalariren batek lau munduak lortzen dituenean, orduan, **erdigunera** abia daiteke.
- Jokalaria erdi-erdira iristen denean, jokoko kideek nahi duten kolorea aukeratu behar dute eta kategoria horretako galdera bat egingo diote. Jokalariak galderari zuzen erantzuten badiu, **jokoa irabaziko du**. Oker erantzuten badiu, aldiz, haren txanda amaitu da, eta hurrengo jokalariaren edo taldearen txanda izango da.

ZORTE ON!

Ahal izanez gero, gomendatzen dugu jokoaren arauak, fitxak eta galderak A4 formatuan inprimatzea. Ondoren, nahi izanez gero, plastifikatu egin ditzakezu, gehiago iraun dezaten. Taula A3 formatuan inprimatzea komeni da, beste piezak baino handiagoa izan dadin. Halaber, fitxen azpian hutsune bat utz dezakezu, oinarri antzeko bat egin eta fitxak zutik edukitzeko.

MISSIO QUIZ

JOKOKO FITXAK



LORTU BEHARREKO MUNDUAK



- Inprimatu fitxak zure pertsonaiarik kuttunenarekin jokatzeko. Gogoratu: munduaren laukian galderari zuzen erantzuten badiozu, kolore horretako mundua eskuratuko duzu.

MISSIO QUIZ

ERANTZUNAK

Jesus (Urdina)

- | | | |
|-----------------------------|----------------------------------|----------------------------|
| 1. Joakim eta Ana | 9. Abenduan | 17. Zesar Augusto |
| 2. Betleemen | 10. Urtarrilaren 6an | 18. Erroldan izena emateko |
| 3. Urrea, intsentsua, mirra | 11. Meltxor, Gaspar eta Baltasar | 19. Kainek |
| 4. Herodesek | 12. Nazareten | 20. Artzainak |
| 5. Egiptora | 13. Eguberri egunean | 21. Pedrok |
| 6. Jerusalemen | 14. Abendualdian | 22. Erramu-igandean |
| 7. Arotzeria edo zurgintza | 15. Izar batek | 23. Markorena |
| 8. Gabriel aingeruak | 16. Kandelario eguna | 24. 33 urte |

Biblia (Horia)

- | | | |
|----------------------------|--|------------------------|
| 1. Aitagurea edo Gure Aita | 9. Hasiera | 17. Hiru |
| 2. Itsaso Gorria | 10. Sara | 18. Hamabi |
| 3. Noek | 11. 40 egun eta 40 gau | 19. Jonas |
| 4. Berrogei urtez | 12. Bere irudira eta antzera | 20. Kanako ezteietan |
| 5. Goliat | 13. Mateo, Marko, Lukas eta Joan | 21. Bidalia |
| 6. Samsonak | 14. Berri Ona | 22. Jordan ibaian |
| 7. Profetek | 15. Aitak, Semeak eta Espiritu Santuak | 23. Lazaro |
| 8. Mana | 16. Pontzio Pilatok | 24. Mendekoste egunean |

Misiolari misiolariak (Berdea)

- | | | |
|-------------------------------|-----------------------------|---------------------|
| 1. <i>Gesto</i> aldizkaria | 9. Misioen Mundu zabaleko | 17. Santiago |
| 2. Jesus Haurrarekin, Misiora | Igandea | 18. Berdea |
| 3. Misiolarien izenean | 10. DOMUND | 19. Zuria |
| Eguberriak zoriontzea | 11. Paulina Jaricotek | 20. Gorria |
| 4. Partekatzeo itsulapikoa | 12. Emakumeak | 21. Horia |
| 5. Urriaren 1a | 13. Amerikan | 22. Urdina |
| 6. Misiolari misiolariak | 14. Besteei emana bizitzea, | 23. Haurrek haurrei |
| 7. Anai-arreben gisara | haiek ere Jesus ezagutzeko | laguntzen diete |
| 8. Frantzisko Xabierkoa eta | 15. Perun | 24. Txinan |
| Santa Teresa Lisieuxekoa | 16. Xabierren (Nafarroa) | |

Kultura orokorra (Gorria)

- | | | |
|----------------------------|--------------------|----------------------|
| 1. Asian | 7. Aita Santua | 16. Hala izan bedi |
| 2. Hamar | 8. Garizuma | 17. Musu batekin |
| 3. Zazpi | 9. Zazpi | 18. Berrogei |
| 4. Bataioa, eukaristia eta | 10. Partekatu | 19. Berrogeita hamar |
| sendotza | 11. Tomasek | 20. Ostirlean |
| 5. Fedea, esperantza eta | 12. Arkumea | 21. Agur Maria |
| karitatea | 13. Pazkoa | 22. Matusalem |
| 6. Aingeru begiralea edo | 14. Azaroaren 1ean | 23. Judasek |
| Guardako aingerua | 15. Aste Santua | 24. Nilo |

1



- Nor ziren Jesusen aitona-amonak?
- Jesusek otoitz bat irakatsi zigun. Nola deitzen diogu otoitz horri?
- Zer izen du misiolari txikien aldizkariak?
- Munduko zer kontinentetan bizi da jende gehien?

MISSIO QUIZ

2



- Non jaio zen Jesus?
- Zer itsaso zeharkatu zuten israeldarrek Egiptotik ihes egiteko?
- Zer izen du Haur Misiolariak ekimenaren 4 urteko proiektuak?
- Zenbat agindu ditu Jainkoaren Legeak?

MISSIO QUIZ

3



- Zer eman zioten Errege Magoek Jesusi?
- Nork eraiki zuen kutxa bat Uholde Handian espezieak salbatzeko?
- Zein da Izarren Ereileak ekimenaren helburua?
- Zenbat sakramentu daude?

MISSIO QUIZ

4



- Nork agindu zuen Betleemgo haur guztiak hiltzeko Jesus jaio zenean?
- Zenbat urtez bizi izan zen Israelgo herria basamortuan?
- Haur batzuek beste batzuei laguntzen diete itsulapiko bati esker. Zer izen du itsulapiko horrek?
- Zein dira kristauen hastapeneko sakramentuak?

MISSIO QUIZ

5



- Nora alde egin zuen Jesusen familiak, Jesus jaio bezain laster?
- Nor garaitu zuen David erregeak?
- Zein da Jesus Hauraren Teresita Santuaren eguna?
- Zein dira hiru bertute teologalak?

MISSIO QUIZ

6



- Zer hiritan galdu zen Jesus 12 urte zituela?
- Nork galdu zuen indarra ilea moztutakoan?
- Gesto* aldizkariko sail batean historiako misiolari nagusiei buruz idazten dute. Zer izen du sail horrek?
- Zer izen du gutako bakoitza zaintzen duen aingeruak?

MISSIO QUIZ

7



- Zer lanbide ikasi zuen Jesusek aitarekin?
- Nork iragarri zuten Mesias mundura zetorrela?
- Misiolarien dekalogoaren arabera, nola ikusten ditu haur misiolari batek gainerako haurrak?
- Nor da gaur egun Pedro apostoluaren oinordekoa?

MISSIO QUIZ

8



- Nork esan zion Mariari Jainkoaren semearen ama izango zela?
- Zer jan zuten israeldarrek basamortuan?
- Zein dira misioen zaindariak?
- Nola deitzen diogu Pazko garairako prestatzeko aldiari?

MISSIO QUIZ

9



- Zer hilabetetan ospatzen dugu Eguberria?
- Zein da Itun Zaharreko lehen liburua?
- Zer esan nahi du "Domund" hitzak?
- Zenbat bekatu-buru edo bekatu kapital daude?

MISSIO QUIZ

10



- Zer egunetan ospatzen dugu Errege Magoen etorrera?
- Nor zen Abrahamen emaztea?
- Misiolariei babesia emateko eguna ospatzen dugu urrian. Zer izen du egun horrek?
- Hauek dira haur misiolaria izateko 3 ekintzak: Sinetsi, Bizi eta...

MISSIO QUIZ

11



- Zer izen dituzte hiru Errege Magoek?
- Zenbat egun iraun zuen Uholde Handiak?
- Nork sortu zuen Domund?
- Zer apostoluk ez zuen sinetsi Jesusen berpizkundera?

MISSIO QUIZ

12



- Non bizi izan zen Jesus ia bizi osoan?
- Noren irudira egin zuen Jainkoak mundua?
- Gure inguruko misiolari ugari ari da lanean munduan zehar. Misiolari horien artetik, gehienak emakumeak ala gizonak dira?
- Zer jan zuten Jesusek eta haren apostoluek azken afarian?

MISSIO QUIZ

13



- Nola deitzen diogu Jesus jaio zen egunari?
- Nor dira lau ebanjelariak?
- Zer kontinentetan bizi da Espainiako misiolari gehien?
- Nola deitzen diogu Jesusen Berpizkundearen ondorengo aldiari?

MISSIO QUIZ

14



- Nola deitzen diogu Gabonetarako prestatzeko aldiari?
- Zer esan nahi du "ebanjelio" hitzak?
- Zer eginkizun dute misiolariak?
- Noiz ospatzen du Elizak Santu Guztien eguna?

MISSIO QUIZ

15



- Zerbaitek seinatu zuen Jesus non jaioko zen. Zerk?
- Nork osatzen dute Hirutasun Santua?
- Munduko zer herrialdetan bizi da Espainiako misiolari gehien?
- Jesusen Nekaldia oroitzen dugu astebetez. Zer izen du aste horrek?

MISSIO QUIZ

16



- Zer izen ematen diogu, gaur egun, Jesus tenpluan aurkeztu zuten egunari?
- Nork garbitu zituen eskuak Jesusen epaiketan?
- Zer herritan jaio zen misioen zaindaria?
- Zer esan nahi du "amen" hitzak?

MISSIO QUIZ

17



- Nor zen Erromatar Inperioko enperadorea Jesus jaio zenean?
- Zenbat egun behar izan zituen Jesusek berpizteko?
- Espainiako hiri batek apostolu misiolari baten izena du. Norena?
- Zer keinurekin egin zion traizio Judasek Jesusi?

MISSIO QUIZ

18



- Zertara joan ziren Jose eta Maria Betleemera?
- Zenbat apostolu zituen Jesusek?
- Misiolari-arrosarioan, zer kolore dagokio Afrikari?
- Zenbat egun irauten du Garizumak?

MISSIO QUIZ

19



- Adamen eta Evaren seme batek anaia hil zuen. Nork?
- Itun Zaharreko zer pertsonaia egon zen balea baten sabelean?
- Misiolari-arrosarioan, zer kolore dagokio Europari?
- Zenbat egun irauten du Pazkoak?

MISSIO QUIZ

20



- Nor joan ziren lehendabizi Jesus jaioberria ikustera?
- Non egin zuen Jesusek lehen miraria?
- Misiolari-arrosarioan, zer kolore dagokio Amerikari?
- Asteko zein egunetan hil zen Jesus?

MISSIO QUIZ

21



- Nork ukatu zuen Jesus hiru aldiz?
- Zer esan nahi du "apostolu" hitzak?
- Misiolari-arrosarioan, zer kolore dagokio Asiari?
- Zer errezorekin egiten diogu otoitz Ama Birjinari?

MISSIO QUIZ

22



- Zer egunetan oroitzen dugu Jesus Jerusalemen sartu zela?
- Zer ibaitan bataiatu zuten Jesus?
- Misiolari-arrosarioan, zer kolore dagokio Ozeaniari?
- Bibliaren arabera, nor bizi izan zen 969 urtez?

MISSIO QUIZ

23



- Lau Ebanjelioetatik, norena da laburrena?
- Zer lagun berpiztu zuen Jesusek?
- Zein da Haur Misiolariak ekimenaren leloa?
- Zer apostoluk egin zion traizio Jesusi?

MISSIO QUIZ

24



- Zenbat urte bizi izan zen Jesus?
- Zer egunetan etorri zitzairen apostoluei eta Mariari Espiritu Santua?
- Zer herrialdetan hil zen Frantzisko Xabierkoa?
- Zein da Afrikako ibairik luzeena?

MISSIO QUIZ